

# ERRENTERIAKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA 2023-2031

ERRENTERIA
UDALA

**Izenburua:** Errenteriako Berdintasunerako III. Berdintasun Plana 2023-2031

**Lan-ardatzen egileak:**
Indarkeria matxisatrik gabeko bizitzak: SORTZEN CONSULTORIA S.L.
Zaintzak duintzen: EQUIPARE KOOP.ELK.TXIKIA
Gobernu ona: ERABERRIA GUNEA S.L.
Emakumeen ahalduntzea: ELHUYAR ZUBIZE, S.L.U.

**Ardatzen emaitzen azterketa eta III Panaren proposamena**
ELHUYAR ZUBIZE, S.L.U.

**Irudia**
Izaro Mariezkurrena

**Data**
2023ko urtarrila

# AURKIBIDEA


1 SARRERA....................................1

2 PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK....................................2

3 ARAUDI MARKOA....................................3

4 PLANAREN PRINTZIPIO GIDARIAK ETA BERMEAK....................................5

4.1 Printzipio gidariak....................................5

4.2 Bermeak....................................6

5 PLANAREN INDARRALDIA....................................10

6 PLANAREN EGITURA....................................11

7 PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA....................................12

7.1 Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko egiturak....................................12

7.2 Plana garatzeko baliabide ekonomikoak....................................18

7.3 Planaren ebaluazio-sistema....................................19

7.3.1 Planaren segimendua....................................19

7.3.2 Urteko kudeaketa-planak....................................21

7.3.3 Inpaktu adierazleak....................................21

8 PLANAREN KOMUNIKAZIOA....................................24

8.1 Plan berria ezagutaraztea....................................24

8.2 Komunikazioa planaren garapenak irauten duen bitartean....................................25

8.3 Planaren amaierako komunikazioa....................................25

ERANSKINA: Ekintza-plana....................................26

# 1 SARRERA

Errenteriako Udalak urteak daramatza berdintasun politikak aurrera eramaten. 2007an egin zuten lehenengo diagnostikoa, eta hartan oinarrituta diseinatu zuten 2008-2012 indarraldia izan zuen Errenteriako Berdintasunerako I. Plana. Honen indarraldia amaitzean ebaluatu eta berria diseinatu zuten; Berdintasunerako II. Planak 2013-2016 indarraldia izan zuen.

Geroztik II. Planaren garapenean buru-belarri aritu da Udala, bai eta bestelako proiektu batzuk aurrera eramaten eta berdintasun arloa zein berdintasun politikak indartzen.

Zentzu honetan, aipagarria da herriko emakume asko eta asko inplikatu zituen parte-hartze prozesu baten ostean, 2019an ireki zituela ateak Errenteriako Emakumeen Etxeak. Herri-mailan berdintasun politikei zein feminismoari dagokionean erreferentziazko gune bilakatu da geroztik Emakumeen Etxea, eta bertan kokatzen dira hainbat zerbitzu: Eskola Feminista, orientabide juridikoa, norbanakoen jabekuntzarako gunea, autozaintza psikologikorako eta sexualerako gunea eta Berdindu: ikasketen homologaziorako eta prestakuntza ibilbideetarako aholkularitza.

Honela, Planaren indarraldia amaituta bazegoen ere, egin beharreko lana ez zegoen agortuta; izan ere, agerikoa da Errenteriako Udalak bazuela lana berdintasun politiketan sakontzen jarraitzeko, eta hala egin duela.

Denbora horretan, gainera, bidelagun izan ditu Udalak mugimendu feminista eta herriko emakumeak, Berdintasun Kontseiluaren bitartez. 2010ean sortu zen ofizialki foro hau, lehenengo Planaren indarraldian zehar, eta geroztik martxan dago. Gune anitza eta aktiboa da Kontseilua eta herriarentzat aberasgarriak izan diren hainbat eta hainbat ekarpen egin dituena; besteak beste, Emakumeen Etxea sortzea.

Kontseiluaz gain, Mugimendu feminista aktibo dago herrian, eta honen adierazle da badituela bere foro propioak, hala nola, Asanblada Feminista, non herriko eragileetako ordezkariek zein norbanako feministek parte hartzen duten. Herrian, gainera, badaude urteetan feminismoan lanean diharduten taldeak zein berriagoak direnak; hau da, tradizioa du mugimendu feministak Errenterian.

Marko honen baitan, Errenteriako Udalak hainbat urtetan garatzen aritu den Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioari heldu zion duela urte batzuk, baina prozesuari indar berezia jarri nahi izan dio. Izan ere, Plana hainbat urtez luzatu den lanketa baten bidez, ardatzez ardatz ebaluatu du Plana Berdintasun arloak eta logika berean eraiki du ardatz bakoitza. Ardatz bakoitza landu ostean, beraz, guztiak bateratu eta Errenteriako Berdintasunerako III. Plana osatzea izan da erronka.

Txosten honetan dago jasota emaitza, Errenteriako Berdintasunerako III. Plana, alegia.

## 2 PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

2019an II. Berdintasunerako Plana ebaluatzeko eta diagnostikoa eguneratzeko eta III. Berdintasunerako Plana osatzeko lanak gauzatzeko beharra Berdintasunerako Aholku Kontseilura eraman zen. Bertan erabaki zen plana ardatzen arabera lantzea; izan ere, Emakumeen Etxearen irekierak aldaketa handiak ekarri zituen eta ardatzetan sakontzeko beharra ikusi zen. Ardatz bakoitzak bere prozesua izan du, ondorengo urratsak jarraituz: aurreko planaren ebaluaketa, diagnostikoaren eguneraketa eta hurrengo plangintzaren zehaztapena.

Ondorioz, 2020an ardatzen araberako lanketa abiatu zen, *Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak* ardatzari lehentasuna emanaz. 2021ko maiatzaren 4an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean Errenteriako emakume eta gizonen arteko III. Berdintasunerako Planaren *indarkeria matxistarik gabeko bizitzak* ardatza onartzeko eta II. Berdintasunerako Planaren beste hiru ardatzak luzatzeko proposamena onartu zen.

2021ean *gobernu ona* ardatzarekin hasi zen eta 2022ko azaroaren 29an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean Errenteriako emakume eta gizonen arteko III. Berdintasunerako Planaren *gobernu ona* ardatza onartu zen.

Era berean, 2021. eta 2022. urteetan zehar II. Berdintasun Planaren *Bizimodu eramangarria erdigunean jartzea* eta *emakumeen ahalduntzea* ardatzen ebaluaziorako lanak, egoeraren diagnostikoaren eguneraketa eta III. Berdintasun Planaren *zaintza-lanen ekonomia feminista, ekonomia feminista* eta *emakumeen ahalduntzea* ardatzen lanketak burutu ziren.

Ondoren, ardatz guztien lanketen emaitzetan oinarrituta **Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko III. Berdintasunerako Plana 2023-2031** osatu da.

# 3 ARAUDI MARKOA

Emakumearen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: “*printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea*”.

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean, Beijineko Emakumeari buruzko IV. Munduko Konferentzian adierazi zuen munduko herrialde guztien bakea eta garapena lortzeko ezinbestekoa zela emakume eta gizonen berdintasuna lortzea. Helburu horretara iristeko politika publiko guztiek **genero-ikuspegia beren jarduera guztietan txertatzeko konpromisoa** hartu zuten. Horrez gain, ekintza positiboak idatzi zituzten, urgentzia handieneko 12 gaitan banatuta.

2015. urtean, *Garapen Jasangarria Helburu 2030* dokumentua adostu zen Nazio Batuen Erakundean. Mundu mailako 17 helburu estrategiko ezarri zizkion nazioarteko agenda politikoari. Bertan, 5. Helburu estrategikoan horrela jasotzen da: *“Genero berdintasuna eta* ***emakume eta neskak ahalduntzea*** *lortzea*”. Dokumentu honetan genero ikuspegia 17 helburuetatik 14etan txertatua dago genero adierazleen bidez, aipatutako helburu espezifikoaz gain.

Bestalde, Amsterdamgo Ituna 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartu zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bihurtu da. Gaur egun, 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zen **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak** azpimarratzen du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua estatu kideen politika eta ekintza guztietan txertatu behar dela (8. artikulua).

**Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan**, berriz, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da, herri-aginteek pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **otsailaren 5eko 2/1988 Legean, Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoan**, jasotzen du lehen mailako gaia dela emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzeko betebeharra. Gauzak horrela, emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituela euskal administrazioak.

Gaur egun indarrean dagoen **EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VII. Planean**, XII. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak daude bilduta.

Aipatutako EAEko berdintasunerako gidalerro horiek gobernantzaren ildotik lan egin beharra ezartzen dute, eta, ***genero mainstreaming*-a eta gobernantza** daude oinarrian. Baina, horrez gain, beste hiru ardatz ere jasotzen dira lanerako: **emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**.

2022ko martxoaren 3an onartu zen **Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 euskal legearen bigarren testu moldaketa.** Orain, 4/2005 Legeak, emakume eta gizonen

berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarako legeak ekarpen berriak jasotzen ditu (hemendik aurrera, 4/2005 EGBL). Moldaketa berriak Euskadiko marko arautzailea Europako Kontseiluko ***Emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriaren aurkako Istanbulgo Hitzarmenera*** **egokitzea** zuen helburu nagusietako bat. Horrek ekarri du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren markoa berritzea, zerbitzuetan zehaztasunak ezartzea eta zerbitzuen hartzaileetan emakumeez gain, haien menpeko senideak sartzea, batez ere adin txikikoak.

Hala ere, 4/2005 EGBLk, oraindik, bere 7.artikuluan ezartzen ditu **tokiko administrazio publikoen zereginak berdintasun politikei dagokionez**. Errenteriako Udalak zeregin horiek garatu beharko ditu bere Berdintasunerako III. Planaren bidez.

Horrez gain, lege horretako 15. artikuluaren 2. puntuan ezartzen da **Tokiko administrazioek Berdintasunerako Planak edo programak izateko betebeharra dutela**.

Errenteriako Udala 2007an hasi zen lehenengo diagnostikoa egiten eta 2008an landu zuen Errenteriako Berdintasunerako I. Plana. Bigarren Planak 2013-2016 indarraldia zuen. Horren ondoren, Berdintasun arloa lanean aritu da, nahiz eta Plan baten markoan ez izan.

Bestalde, 2012ko maiatzaren 29an, Osoko Bilkuran, Errenteriako Udalak onespena eman zion emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako **Europako Gutunari**. Berdintasunerako Europako Gutunarekin bat egiteak suposatzen du berdintasunaren aldeko jarrera publikoa hartzea eta berdintasuna bultzatzeko oinarrizko printzipio batzuk aitortzea.

Marko arautzaile guzti honi jarraiki diseinatu dugu Errenteriako Berdintasunerako III. Plana.

# 4 PLANAREN PRINTZIPIO GIDARIAK ETA BERMEAK

## 4.1 Printzipio gidariak

**Paradigma feminista**

Teoria eta praktika feminista da plan honek ernamuinean duen printzipio nagusia, sexuen arteko berdintasun politiko, ekonomiko, pertsonal eta soziala erdiestea baitu helburu. Finean, desberdinkeriak eta diskriminazioak zergatik sortzen diren azalarazi eta patriarkatuari zein matxismoari aurre egiteko jarrera sustatu nahi du. Izan ere, Errenteriako Berdintasunerako III. Plan honen markoak egoera hauek kulturalki eraikitakoak direla defendatzen du, genero-sistemaren eraikuntzari esker. Eta, ondorioz, analisi eta lan-metodologia modura, **genero-ikuspegia** bere egiten du, berdintasun egoera erdiesteko gizonek eta emakumeek politika ezberdinak behar dituztela onartuz.

**Intersekzionalitatea**

Printzipio honen bidez sexua eta generoa beste ezaugarri/identitate batzuekin (klasea, etnia, arraza, hizkuntza, jatorria, sexu-orientazioa, adina, dibertsitate funtzionala eta abar) nola uztartzen diren eta uztarketa horiek zer nolako zapalkuntza eta pribilegio-egoerak sortzen dituzten aztertuko du planak etengabe, “emakume” unibertsalaren eredu hegemonikoari aurre eginaz.

**Emakumeen ahalduntzea**

Emakumeen ahalduntzea Berdintasunerako III. Planaren ardatzetako bat izateaz gain, printzipio gidarietako bat ere bada, berdintasuna erdiesteko ezinbestekoa baita. Emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua da; maila pertsonalean, kolektiboan, sozialean eta politikoan landu beharrekoa.

**Gobernantza partekatua**

Planean zer landuko den zehaztea bezain garrantzitsua da zehaztutako hori nola landuko den esatea. Printzipio honek, beraz, nolakotasunari egiten dio erreferentzia. Planaren espiritua da helburu edo norabide bera partekatzen duten mugimendu feminista, emakume-talde, herri eragile edota herriaz gaindiko erakundeekin elkarlanean eta elkarreraginean jardutea. Eta ez soilik iritzi eta aholkuak jasotzeko espazioak ahalbidetuz; baita berdintasun politika publikoak diseinatu eta egikaritzeko tresnak eta bitartekoak eskainiz ere, boterea partekatzeak udalerri berdinzaleago baten bidean eragin biderkatzailea izango baitu.

**Arreta integrala, inklusiboa eta erreparatzailea**

Emakume zaurgarrienei, eta bereziki indarkeriaren biktima direnei, arreta ikuspegi holistikotik eskaintzea eta erreparazioa arreta horren erdigunean kokatzea da planaren beste printzipioetako bat. Indarkeriak maila ezberdinetan eragindako minean arreta jarri eta ondorioei so eginez, emakume horren eskubideak urratzea ahalbidetu duten baldintzak ez errepikatzeko neurriak hartzea dagokio funtzio publikoari; planaren markoa eraikitzean begirada hori presente egon da eta norabide horretan bidelagun izan nahi du planak.

**Zaintza erdigunean**

Berdintasunerako III. Planak zaintzailea izan nahi du proposatu dituen urrats guztietan; zaintzailea inguruarekiko nahiz planaren hartzaile izango den pertsona ororekiko. Ondorioz, jendartearen errealitate konplexua aintzat hartuko du uneoro, eta pertsona guztiak desberdinak direla eta behar berezituak dituela presente izango du.

**Herri-kohesioa eta bizigarritasuna**

Printzipio honen xedea da plana Errenterian kokatzea, herri-identitate eta testuinguru jakin batetan, politika publikoek tokian tokiko errealitatera lotuta behar baitute. Berdintasunerako III. Planak udalerriaren kohesioan eta bizigarritasunean ekarpena egin nahi du eta, ondorioz, planeko ardatz zein urrats orotan presente egon beharreko premisetako bat da honakoa.

**Memoria eta aitortza**

Berdintasunerako III. Plana ezinezkoa zatekeen aurretik, urte luzez, emakume askok eta mugimendu feministak lanik egin ezean. Egindako lana jaso eta bistaratzea ezinbestekoa da etorkizuneko herri-erronkak irudikatu eta josteko. Egindako lan horri instituzioetatik aitortza publikoa egitea berme bat da politika feministetan sakontzeko. Plan honek urteetan egindako bidea aitortzeko ere balio dezala.

## 4.2 Bermeak

Plana aurrera atera ahal izateko ezinbesteko gutxieneko batzuk egongo dira, Udalak bete beharko dituenak, Plana behar bezala garatzeko baldintzak bermatze aldera.

Hauek dira, Errenteriako Udalak Berdintasunerako III. Plana behar bezala aurrera eraman ahal izateko ezinbestean bete beharko dituen bermeak. Berme hauen betetze-maila zenbait adierazleren bitartez neurtuko dugu Planak irauten duen epealdian. Honela, zehaztutako berme horiek konpromiso neurgarriak izango dira, eta hauen betetze-mailak zerikusi zuzena izango du Planaren arrakastarekin.

<table>
<tr><th colspan="2">Bermeak</th><th>Urratsak</th><th>Adierazleak</th></tr>
<tr><td colspan="2" rowspan="3">Berdintasun politikak begirada feministarekin garatzeko konpromiso politikoa</td><td>Udalbatzan Berdintasunerako Plana onartu.</td><td>Plana onartu da: bai/ez<br>Zer babes-mailarekin onartu den</td></tr>
<tr><td>Udalbatzan genero-zeharlerrotasun estrategia garatzeko konpromisoa hartu.</td><td>Konpromisoa hartu da: bai/ez</td></tr>
<tr><td>Sailetako kudeaketa-planetan genero-zeharlerrotasun estrategiari leku bat egin.</td><td>Kudeaketa planean genero-zeharlerrotasun estrategia kontuan hartu duten sail-kopurua.</td></tr>
<tr><td rowspan="7">Berdintasun -politikak garatzeko beharrezko baliabideak ezartzea</td><td rowspan="2">Berdintasun-politikak aurrera eramateko beharrezko aurrekontua aurreikustea</td><td>Urtez urte kudeaketa-plana diseinatzean hori aurrera eraman ahal izateko beharrezko aurrekontua esleitu berdintasun politikei.</td><td>Urtez urte aurrekontuaren segimendua egitea: aurrekontuaren guztizkoa eta aurrekontu osoaren % zenbat den.</td></tr>
<tr><td>Aurrekontuan beherakadarik egon ez dadin bermatu.</td><td>Aurrekontuan beherakadarik egon da: bai/ez</td></tr>
<tr><td rowspan="3">Berdintasunaren egitura estrategikoa definitzea.</td><td>Berdintasun arloak udal organigraman betetzen duen lekua aztertzeko gogoeta egin.</td><td>Gogoeta egin da: bai/ez<br>Gogoetan parte hartu duten duten pertsona-kopurua: sexuaren eta arduraren arabera.<br>Prozesuarekiko gogobetetzea: sexuaren eta departamenduaren arabera bereizita.</td></tr>
<tr><td>Berdintasun arloak KGOn eta herritarren eremua izan duen eragina neurtu.</td><td>Koordinazio organoan gaia landu den bilera-kopurua.<br>Gaiari zuzendutako denbora.</td></tr>
<tr><td>Berdintasun arloak KGOn eta herritarren gunean izango duen rola zehaztu.</td><td>Rola zehaztu da: bai/ez<br>Adostutako rol hori betetzen da: bai/ez</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Berdintasun arloaren lantaldea sendotzea.</td><td>Sailaren aukerak eta beharrak identifikatzeko lansaioa antolatu.</td><td>Lansaioa egin da: bai/ez<br>Lansaioan parte hartu duten pertsona-kopurua: sexuaren eta arduraren arabera.<br>Lansaioaren balorazioa: sexuaren eta arduraren arabera.</td></tr>
<tr><td>Rolak eta barne koordinaziorako sistema definitu.</td><td>Sistema definitu da: bai/ez</td></tr>
</table>

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Premiak asetzeko behar diren lanpostuetarako deialdia egin. | Lanpostuetarako deialdia egin da: bai/ez<br>Aurkeztu diren pertsona-kopurua: sexuaren arabera bereizita.<br>Kontratazioa egin da: bai/ez |
| | | Ikasketa feministetan formatutako profilak ziurtatu; kontratatzen den pertsonak bermatu beharko du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-ikastaroa, gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatuta (unibertsitatea edo administrazio publikoa). | Hautatutako pertsonek ikasketa feministak dituzte: bai/ez |
| **Udal-departamentu guztien konpromisoa eta erantzunkidetasuna Berdintasunerako Plana aurrera eramateko** | | Berdintasunerako Planari segimendua egitea Koordinazio Gune Orokorrean (KGO). | Koordinazio organoan gaia landu den bilera-kopurua.<br>Gaiari zuzendutako denbora. |
| | | Lanketa konkretuak egiteko berariazko lantaldeak sortu. Zeharkakotasuna bermatuz. | Sortu diren lantalde-kopurua eta horietako bakoitzak egin duen bilera-kopurua.<br>Lantalde horietan parte hartu duten udal departamentu-kopurua. |
| | | Udal-departamentu bakoitzak Planean dagozkion ekintzen ardura hartu eta ekintzak aurrera eraman. | Berdintasunak lidergoa izan gabe garatutako ekintza-kopurua.<br>Berdintasunerako Planarekin lotuta bere ekintza propioak garatu dituzten departamentu-kopurua. |
| | | Genero-zeharlerrotasun estrategia inplantatzerakoan, ikuspegi intersekzionalez egin. | Askotariko zapalkuntzak aintzat hartzen dituzten proiektu-kopurua.<br>Datu-bilketetan jasotzen diren aldagai-kopurua. |
| **Berdintasun politikak eragile sozialekin eta herritarrekin partekatuta diseinatzea** | | Berdintasun kontseilua mantendu eta honen erabakitzeko gaitasuna bermatzen jarraitu. | Berdintasun kontseiluak egin dituen bilera-kopurua.<br>Bilera horietan parte hartu duten emakume-kopurua.<br>Kontseiluan landutako proposamen-kopurua |
| | | Berdintasunerako Plana zein bestelako programa edo prozesuak egiterakoan herritarren, eta bereziki emakumeen, partaidetza sustatu. | Lanketa konkretuak egiteko aurrera eramandako partaidetza prozesuen kopurua.<br><br>Prozesu horietan parte hartu duten pertsona-kopurua, hainbat aldagairen |

| | | |
|---|---|---|
| | | arabera: sexua, adina, jatorria...<br>Prozesuetan parte hartu duten pertsonen balorazioa, hainbat aldagairen arabera: sexua, adina, jatorria... |
| | Emakumeen Etxeko ko-gobernantza ereduaren aldeko apustua egiten jarraitu. | |

# 5 PLANAREN INDARRALDIA

Planak guztira **9 urteko iraunaldia** izango du, 2023an abiatu eta 2031ra artekoa. Planaren lanketan indar berezia jarri du Errenteriako Udalak eta, beraz, logika horren baitan, indarraldia ere luzeagoa izango du Planak. Gainera, iraupen luzeko Plana izateak **erronka estrategikoei heltzeko aukera paregabea** ematen dio Udalari, legegintzaldiko logikatik haratago joanez.

Aipagarria da, baita ere, Planaren indarraldia 9 urtekoa izanda ere, aurreko bi urteetan (2021-2022) Planean jasotako hainbat ekintza garatzeko lanean aritu dela Udala, beraz, hainbat ekintza burututa edo garatze-bidean daudela jada Plana abiatu denerako (batez ere lehenengo landu ziren lan-ildoekin lotutakoak).

Planaren antolaketa egitean, **kronograma hirurteka antolatu** dugu; horrek esan nahi du **urtero kudeaketa-planak** diseinatu beharko dituela Berdintasun arloak. Hona hemen hirurteko bakoitzean egitea aurreikusitako ekintza-kopurua:

| 2023-2025 | 2026-2028 | 2029-2031 |
|---|---|---|
| 134 | 104 | 78 |

Ekintza-kopurua beherantz doa, izan ere, ulertzen dugu hainbat ekintzaren garapena edo burutzea progresiboa izango dela eta, beraz, lehenengo urteetan garatutako hainbat ekintzek gerora lanak ekarriko dituztela.

## 6 PLANAREN EGITURA

Errenteriako Berdintasunerako III. Plana Emakunderen VII. Planaren eskemari jarraiki eraikia dago. Hala ere, lau ardatz nagusi izan beharrean bost ardatz dauzka.




Ardatz horietako bakoitzak helmuga batzuk ditu, hau da, nora iritsi nahiko lukeen Errenteriak Planaren indarraldia amaitzen den 2031. urterako, eta helmuga horietara gerturatzeko jorratu beharreko ibilbideak. Halaber, ibilbide bakoitzak urrats konkretu batzuk ditu, bide hori nola jorratu azaltzen dutenak.

Ardatz bakoitzaren tamaina ezberdina da, bi bereziki txikiak dira eta gainontzeko hiruak handiagoak. Hurrengo taulan ikus daiteke bakoitzaren dimentsioa:

| 1. ardatza | 2. ardatza | 3. ardatza | 4. ardatza | 5. ardatza |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| GOBERNU ONA | EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA | EKONOMIA ERALDATZEA | INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA |
| 7 helmuga<br>14 ibilbide<br>56 urrats | 4 helmuga<br>11 ibilbide<br>60 urrats | 2 helmuga<br>5 ibilbide<br>17 urrats | 1 helmuga<br>4 ibilbide<br>11 urrats | 3 helmuga<br>11 ibilbide<br>45 urrats |

# 7 PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA

4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legean aldaketa asko sartu dira berriki, orain arte aipatu bezala. Zehazki, 15. artikuluko 4. puntu berriak ezartzen ditu Berdintasunerako Plan batek gutxienez izan behar duten atalak. Bertan adierazten da dokumentuak, helburu eta ekintzez gain, Plana garatzeko, segimendua egiteko eta ebaluatzeko erabiliko diren tresna eta baliabideak jaso behar dituela, baita gardentasuna bermatzeko kontuak edo komunikazioa nola egingo diren ere. Atal honetan aipatutako puntuak zehaztu dira.

Plana behar bezala garatu ahal izateko Berdintasunerako Planaren urteko kudeaketa-plana prestatuko du Berdintasun arloak eta hori izango da lanerako erabiliko duen dokumentua.

## 7.1 Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko egiturak

Errenteriako Berdintasunerako III. Planaren garapen egokia bermatzeko, beharrezkoak diren koordinazio-egiturak martxan jarriko ditu Udalak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorrei jarraituz*:* “Euskal herri-aginteek, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen”.

Gainera, Errenteriako Berdintasunerako III. Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Udalaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartuko dute Berdintasunerako Plana: bai neurrien kudeaketa ekonomikoan eta garapenean islatu den konpromiso formal gisa, baita emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso gisa ere. Konpromiso horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko trebakuntza-saioetan, bileretan eta abarretan parte-hartzeko prestutasunean izango du isla.

Zeharkakotasuna eta arlo guztien inplikazioa ezinbestekoak izango dira Plana aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, Berdintasun teknikariaren lana eta inplikazioa ez ezik, beste alorretako teknikariena ere beharrezkoa izango da, Planak alor ezberdin asko ukitzen baititu; beraz, lana modu transbertsalean egitea askoz eraginkorragoa izango da benetako inpaktua lortzeko.

Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak izango dira. Horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu. Hiru dira garapenerako proposatzen ditugun egitura nagusiak; horiez gain, Emakumeen Etxeko Batzarra ere martxan egongo da. Nahiz eta hau ez den berariaz Planari segimendua egiteko egitura bat, Plana aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izango da egitura hau, bai eta Emakumeen Etxeak berak aurrera jarraitzeko. Hona hemen planaren garapenean zehar martxan egongo diren egiturak:

1. **Berdintasun arloa**
2. **Koordinazio Gune Orokorra (KGO)**
3. **Berdintasun Kontseilua**
4. **Emakumeen Etxeko Batzarra**
5. **Erakunde arteko koordinazio-egiturak**

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen dira.

Planaren garapenaren ardura nagusia **Berdintasun teknikariak** izango du, Berdintasunaren arduradun politikoarekin batera. Hau izango da planaren sustapenerako arduraduna eta jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutzearen ardura izango duena, nahiz eta beste sailek ere parte hartu.

Errenteriako Berdintasunerako Teknikariak lanaldi osoko kontratua du berdintasunera zuzenduta; gainera, lantaldean Emakumeen etxeko teknikaria eta administrari bat ere badaude. Teknikariaren lanpostua zehaztean, gainera, berdintasun legearen 17. Artikuluan zehaztu bezala, berdintasuneko berariazko prestakuntza duen pertsona bat izan behar dela jaso zen. Honela, berdintasun teknikariak 150 ordu baino gehiagoko formakuntza dute berdintasunean eta baita hainbat urteko esperientzia ere administrazio publikoan.

## 1. BERDINTASUN ARLOA

Berdintasunerako III. Planaren sustapen, garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.

### Parte-hartzaileak

- Berdintasunerako arduradun politikoa.
- Berdintasun teknikaria.
- Emakumeen etxeko dinamizatzailea.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planaren garapenean inplikatutako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.

### Funtzionamendua

- Gune hau etengabeko koordinazioan egongo da eta behar beste bilera egingo ditu.

**Sailen arteko lana eta zeharlerroko estrategia bermatzeko ardura** izan duen gune nagusia Koordinazio Gune Orokorra (KGO) izango da. Jada beste funtzio batzuk betetzen dituen gunea da, eta denbora darama martxan Errenteriako Udalean. Espazio honetan Berdintasun Arloak parte hartze egonkorrik ez badu ere, badu parte hartzeko aukera zeharlerroko izaera duen heinean. Bertan koordinatzen dira Udalean aurrera eramaten diren prozesu esanguratsuenak, beraz, Berdintasunerako Planak zeharlerroko ikuspegia izan dezan bermatu nahi bada, hau izango da barne-koordinaziorako foro egokiena. Hauek izango dira, beraz, KGOk, Berdintasunerako Planari dagokionez, izango dituen egitekoak:

## 2. Koordinazio Gune Orokorra (KGO)

Berdintasunerako III. Planaren garapen-tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

### Parte-hartzaileak

- Udal-sailetako arduradunak.
- Ordezkari politikoak.
- Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri gakoak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Udalean genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.
- Berdintasunerako Planaren segimendurako tresna elikatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena osatu eta kontrastatzea, helburuetara gerturatzen ari garen ala ez ikusiz.
- Ekintza puntual batzuk koordinatzea, beharrezkoa den kasuetan (Planean zehaztuta dago gune honek izango duela ekintza batzuen ardura).

### Funtzionamendua

- Urtero, gutxienez behin, berariazko segimendua egingo dio Berdintasunerako Planaren garapenari; aurreko urteko betetze-maila aztertuz eta hurrengo urteko Kudeaketa Plana martxan jarriz.
- Horrez gain, gune honek bere ohiko dinamika izaten jarraituko du, eta bilera horietan beste gaiekin batera berdintasunarekin lotutako gaiak landuko dira, beharrezkoa balitz.

Udaleko teknikari guztiek foro honetan parte hartzen ez dutela jakinik eta zeharlerroko estrategia garatu eta Plana benetan udal-jardueran integratzeko beraien parte hartzea eta inplikazioa ere ezinbestekoak direla jakinik, ezinbestekoa izango da KGOn parte hartzen duten teknikariek bere sailetan bertan hitz egindakoaren berri ematea zein gainontzeko teknikarien eta Berdintasun arloaren arteko harremana zaintzea.

Planaren garapenerako ezinbestekoa izango den beste egitura bat Berdintasun Kontseilua da. Bertan herriko zenbait emakumek hartzen dute parte, eta hau da herriko emakumeek berdintasun politiketan eragiteko eta parte hartzeko izango duten bidea.

## 3. Berdintasun Kontseilua

Herriko emakumeen parte-hartzeko markoa

### Parte-hartzaileak

- Herritarrak
- Berdintasunaren arduradun politikoa
- Berdintasun teknikaria

### Funtzioak

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Udaleko politikak gidatu eta aholkulari-lanak egin.
- Aukera berdintasunerako udal jarduera-planak bultzatzea eta berauen jarraipena egitea. Halaber, Udaleko Berdintasunerako Planaren printzipioak betetzen ote diren ikuskatzea.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko neurriak sustatzea eta formulak proposatzea programak, ekintzak eta eskaintza bereziak planteatzeko instantzia ezberdinetan, bereziki, udal mailan.
- Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea emakumeen bizitza kalitatea hobetze aldera.
- Emakume guztiek udalaren gaietan parte hartu ahal izatea erraztea.
- Emakumeen egoera hobetzeko ekintza zuzenak edo zeharkakoak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeen arteko lankidetza eta kooperazioa bultzatzea.

### Funtzionamendua

- Berdintasun Kontseilua hilero biltzen da, eta besteak beste, Planaren baitan jasotako ekintzei segimendua egingo diete, garatu ahala.
- Urtean behin berariaz segimendua egingo dio Planaren betetze-mailari eta hurrengo urteko Kudeaketa Plana ezagutzeari.

Horiek izango dira berariaz Planari segimendua egiteko sortuko ditugun egiturak. Horiez gain, ordea, Emakumeen Etxeko Batzarrak ere funtzio garrantzitsua izango du Planaren hainbat eta hainbat ekintzen garapenean, nahiz eta zeharka izan.

## 4. Emakumeen Etxeko Batzarra

Emakumeen Etxekoko-gobernantzarako egitura

### Parte-hartzaileak

- Etxekideak
- Berdintasunaren arduradun politikoa
- Berdintasun teknikaria
- Emakumeen Etxeko dinamizatzailea

### Funtzioak

- Emakumeen Etxearen dinamikari segimendua egin eta ekarpena egitea.
- Emakumeen Etxeko gobernantzan esku hartzea.
- Emakumeen Etxearen gaineko erabakiak hartzea.

### Funtzionamendua

- Emakumeen Etxeko Batzarrak bere dinamika propioa izaten jarraituko du.
- Planari dagokionez, hainbat ekintzek Emakumeen Etxeari erreferentzia egiten dioten heinean nolabaiteko lotura izango du, baina ez da izango bere horretan berdintasunerako planari segimendua egingo dion egitura bat.

Planean jasotzen diren ekintzak aurrera eramateko erakundeen arteko koordinazio egitura ezberdinak aurreikusten dira. Bi motatako egiturak daude: Errenteriako Udalak berak sustatutakoak eta beste erakunde batzuek sustatutakoak eta Errenteriako Udalak bertan parte hartzen duena.

## 5. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

Berdintasunerako III. Planaren sustapen, garapen eta jarraipenerako erakundeen arteko elkarlanerako espazioa.

### Egiturak

- Indarkeria matxisten arreta eta koordinazioa hobetzeko tokiko erakundeen arteko mahaia.
- Hezkuntza-mahaia.
- Oarsoaldeako berdintasun politiken koordinazio-egitura politiko-teknikoa.
- Berdinsarea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren berdintasun politikak udal mailan sustatzeko egitura.

### Funtzioak

- Erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea.
- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak elkarlanean garatzea eta adostea.
- Adostutako helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.

### Funtzionamendua

- Gune bakoitzak bere funtzionamendua eramango du eta behar beste bilera egingo ditu.

## 7.2 Plana garatzeko baliabide ekonomikoak

Berdintasun arloak urtero izango du aurrekontu propioa, eta aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Honela, ekintza-planean aurreikusi bezala, Errenteriako Udalak urtero kudeaketa plana aurrera eraman ahal izateko beste baliabide zuzenduko ditu Berdintasun arlora, edota Planeko ekintzak garatzeaz arduratuko diren beste sailetara; izan ere, gainontzeko sailek ere Planean beraiei dagozkien ekintzak garatu ahal izateko aurrekontu propioa aurreikusi beharko dute.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago egokitzen diren ekintza-moten arabera, urte batzuetan Planak aurrekontu handiagoa eskatu dezakeela, beraz, hori ere kontuan hartu beharreko zerbait da aurrekontuak zehazterako orduan.

Zentzu horretan, azpimarragarria da Errenteriako Udalak berdintasun arloari zuzendutako aurrekontuaren bilakaera handia izan dela azken urteetan. 2012az geroztik gorazko joera izan du aurrekontuak, pandemiaren urtean izan ezik. Hamar urteetako bilakaera aintzat hartuta aurrekontua % 254,63 hazi da, 119.850,00 € zehazki esanda. Jarraian azaltzen den taulan ikus daiteke bilakaera hori.

2023an, gainera, goranzko joera mantentzen da. Honela, bermatuta dago Planaren garapeneko lehenengo urtean aurrekontu nahikoa egongo dela berdintasunerako politikak garatzeko eta, beraz, Planean bertan jasotako ekintzak burutu ahal izateko. Udalaren asmoa da hurrengo urteetan joera berbera mantentzea aurrekontuari dagokionez.

| Urtea | Aurrekontua | Aldea aurreko urtetik |
|---|---|---|
| 2012 | 77.510,00 € | - |
| 2013 | 72.800,00 € | -4.710,00 € |
| 2014 | 72.800,00 € | 0,00 € |
| 2015 | 75.300,00 € | 2.500,00 € |
| 2016 | 107.560,00 € | 32.260,00 € |
| 2017 | 117.480,00 € | 9.920,00 € |
| 2018 | 128.060,00 € | 10.580,00 € |
| 2019 | 149.060,00 € | 21.000,00 € |
| 2020 | 182.360,00 € | 33.300,00 € |
| 2021 | 182.360,00 € | 0,00 € |
| 2022 | 197.360,00 € | 15.000,00 € |
| 2023 | 218.500,00 € | 21.140,00 € |

Diru-partida horrez gain, gainera, pertsonalaren gastua ere igo dela aipatu beharra dago; izan ere, Emakumeen etxea martxan jartzearekin batera ekipoa handitu egin da eta udalak berdintasun arloan egiten duen pertsonal gastua ere handitu da.

Honela bada, azken urteetako bilakaerak adierazten du Errenteriako Udalak orain arte berdintasun politikak garatzeko beharrezko baliabideak jarri dituela, eta hurrengo urteetan ere hala egiten jarraitzeko konpromisoa du.

## 7.3 Planaren ebaluazio-sistema

Ebaluazioa funtsezko prozesua da Planaren **betetze-maila zein den** eta martxan jarritako **ekimenek zer inpaktu izan duten jakiteko**. Zentzu horretan, hiru ebaluazio-mota burutuko ditu Errenteriako Udalak: betetze-mailari dagokiona, emaitzei dagokiena eta inpaktuari dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo helburuak lortu ahal izango ditugu:

- Errenteriako Berdintasunerako III. Plana aplikatzeak eman dituen emaitzak ezagutzea.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Berdintasun-politikak erraztu edo lagundu dituzten faktoreak identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Udalaren barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herriarengan eta herritarrengan izan duten balizko inpaktua edota eragina zein den ezagutzea.

Ebaluaziorako **irizpide orokorrak** honako hauek izango dira:

- **Inpaktua**: Planak Udal barruan eta udalerri-mailan izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak.
- **Eraginkortasuna**: Planaren erronka eta helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura**: Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea**: ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea: Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.**

### 7.3.1 Planaren segimendua

Aurrez aipatu bezala, Errenteriako Berdintasunerako III. Plana Excel batean jasota dago segimendua modu errazean egin ahal izateko.
Excel dokumentua hiru ataletan banatuta dago, nahiz eta orri gehiago izan: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Plana bera osotasunean (ardatz bakoitza orri batean dago jasota) eta inpaktu-adierazleei dagokiena.
Lehenengo atalak **Planaren argazki orokorra** zein den ikustea ahalbidetuko du, hau da, planteamendu orokorra zein den argitzen eta orotara nolakoa den ikusten.

**ERRENTERIAKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA**

ERRENTERIA UDALA — elhuyar

**Plana garatzeko bermeak:**

- Berdintasun politikak begirada feministarekin garatzeko konpromiso politikoa.
- Berdintasun-politikak garatzeko beharrezko baliabideak ezartzea.
- Udal-departamentu guztien konpromisoa eta erantzunkidetasuna Berdintasunerako Plana aurrera eramateko
- Berdintasun politikak eragile sozialekin eta herritarrekin partekatuta diseinatzea

**9 URTEKO IRAUNALDIA:**

| 2023-2025 | 2026-2028 | 2029-2031 |
|---|---|---|
| 134 | 104 | 78 |

**Planaren esku-hartze eremuak eta hauetan aurrera egiteko helmugak eta ibilbideak:**

| 1. ardatza | 2. ardatza | 3. ardatza | 4. ardatza | 5. ardatza |
|---|---|---|---|---|
| 1. GOBERNU ONA | EMAKUMEEN AHALDUNTZEA | ZAINTZA-LANEN EKONOMIA FEMINISTA | EKONOMIA ERALDATZEA | INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIA |
| 7 helmuga<br>14 ibilbide<br>57 urrats | 4 helmuga<br>11 ibilbide<br>60 urrats | 2 helmuga<br>5 ibilbide<br>17 urrats | 1 helmuga<br>4 ibilbide<br>11 urrats | 3 helmuga<br>11 ibilbide<br>45 urrats |

| | |
|---|---|
| GO.1. Udala lanerako leku berdinzaleagoa izatea bertan lan egiten duten pertsonentzat | GO.1.1.Udalaren barne-diagnostikoa egin, bereizkeria egoerarik badagoen ezagutu eta Planera begira beharrak zein diren identifikatzeko |
| | GO.1.2. Udalaren berdintasunerako barne-plana egitea. |
| GO.2. Etengabeko trebakuntza bermatzea, Berdintasunerako Plana garatzeko beharrezko baldintzak sortzeko eta genero-ikuspegia jardueran integratzeko | GO.2.1. Udal-langileen trebakuntza beharrei erantzungo dien trebakuntza-plan bat izatea, genero-ikuspegia aintzat hartuko duena |
| | GO.2.2. Udal ordezkari politikoak berdintasunean eta feminismoan trebatzea, udal-politikek genero-ikuspegia integratu dezaten |
| GO.3. Genero-zeharlerrotasun estrategian sakontzen jarraitzea | GO.3.1. Datuak biltzean eta hauen analisian ikuspegi feminista txertatzea |
| | GO.3.2. Sektorekako eta zeharkako planetan ikuspegi feminista txertatzea. |
| GO.4. Berdintasun-araudia | GO.4.1. Udal araudietan ikuspegi feminista txertatzea. |
| | GO.4.2. Berdintasuneko araudia(k) lantzea |

Bigarren atalean **ardatz bakoitzaren zehaztasunak** ikusi ahal izango ditugu. Urrats guztiak banan banan, bakoitza zein epetan garatu behar den, arduraduna eta inplikatutako sailak zein diren eta urrats bakoitzari segimendua egiteko jarraipen-adierazleak. Gainera, atal honek ekintzen betetze-mailaren segimendua egin eta urtez urte zer egin den eta zer ez jasotzeko aukera ere ematen du. Honela, urtez urte ekintzen betetze-maila zein den eta honen inguruko oharrak jasotzen joango gara, segimendu estua egitea ahalbidetuz.

| HELMUGA | Ibilbideak | Urratsak | ARDURADUNAK | INPLIKATUTAKO ARLOAK | URRATS-GAKOAK | 2021-2022 | 2023-2025 | 2026-2028 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GO.1. Udala lanerako leku berdinzaleagoa izatea bertan lan egiten duten pertsonentzat | GO.1.1. Udalaren barne-diagnostikoa egin, bereizkeria egoerarik badagoen ezagutu eta Planera begira beharrak zein diren identifikatzeko | GO.1.1.1. Udal barruko berdintasun egoeraren inguruko diagnostikoa egin sail ezberdinekin lankidetzan. | Giza baliabideak | | | | x | |
| | GO.1.2. Udalaren Berdintasunerako barne-plana egitea. | GO.1.2.1. Udal barruko Berdintasunerako Plana egin udaleko departamentu ezberdinen partehartzea eta lankidetzearekin. | Giza baliabideak | | | | x | |
| | | GO.1.2.2. Planaren berri eman udal barruan. | Giza baliabideak | | | | x | |
| | | GO.1.2.3. Berdintasunaren ezarpen eta jarraipenaz arduratuko den egitura definitu. | Giza baliabideak | | | | x | |
| | | GO.1.2.4. Planaren indarraldia amaitzean, hau ebaluatu, udalaren diagnostikoa eguneratu eta Plan berria diseinatu. | Giza baliabideak | | | | | x |
| GO.2. Etengabeko trebakuntza bermatzea, Berdintasunerako Plana garatzeko beharrezko baldintzak sortzeko eta genero-ikuspegia jardueran integratzeko | GO.2.1. Udal-langileen trebakuntza beharrei erantzungo dien trebakuntza-plan bat izatea, genero-ikuspegia aintzat hartuko duena | GO.2.1.1. Udal langileek berdintasunaren inguruan dituzten trebakuntza beharrak aztertu, ezagutza-maila eta plana aurrera eramateko beharrezkoak diren ezagutzak identifikatuz. | Berdintasuna | Giza baliabideak | | GARATZE BIDEAN | x | |
| | | GO.2.1.2. Langileek dituzten beharrak aintzat hartuta, berdintasuneko trebakuntza-plan bat diseinatu eta hori trebakuntza-plan orokorrean integratzea landu. | Giza baliabideak | | | | x | x |
| | | GO.2.1.3. Udala langileek berdintasunean dituzten trebakuntza beharrei erantzuteko trebakuntzak antolatu. | Giza baliabideak | | | | x | x |
| | | GO.2.1.4. Berdintasuna edota feminismoarekin berariaz lotuta ez dauden trebakuntzetan genero-ikuspegia integratzen dela bermatu, zeharkako gai gisa. | Giza baliabideak | | | | x | x |
| | | GO.2.1.5. Trebakuntzen jarraipena egiteko sistema definitu, genero-ikuspegia aintzat hartuta. | Giza baliabideak | | | | x | |
| | GO.2.2. Udal ordezkari politikoak berdintasunean eta feminismoan trebatzea, udal-politikek genero-ikuspegia integratu dezaten | GO.2.2.1. Ordezkari politikoak berdintasun gaietan trebatzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea agintaldi bakoitzean. | Berdintasuna | | | | x | x |
| | | GO.2.2.2. Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaintzea, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko. | Berdintasuna | Giza baliabideak | | | x | x |
| | | GO.3.1.1. Sail bakoitzean erabiltzen diren inprimaki eta/edo datu-baseak aztertu, zein aldagai jasotzen | Informazioaren | Sail guztiak | | | x | |

OROKORRA | Bermeak | Gobernu ona | Emakumeen ahalduntzea | Zaintza-lanen ekonomia feminist | Ekonomia eral ...

**Inpaktu adierazleen segimendua** hirugarren atalaren bidez egin ahal izango dugu. Honetarako, beti ere ekintza zehatzak kontuan hartuta, helburuekin lotzen diren inpaktu-adierazle batzuk identifikatu ditugu (aurrez aurkeztutakoak), egiten ari garen lan hori zer eragin izaten ari den neurtu ahal izateko.

| Ardatza | Helmuga | Inpaktu-adierazlea | 2023 | 2024 | 2025 | 2026 | 20 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gobernu ona | GO.2. Etengabeko trebakuntza bermatzea, Berdintasunerako Plana garatzeko beharrezko baldintzak sortzeko eta genero-ikuspegia jardueran integratzeko | Trebakuntza jaso duten udal-langile kopurua eta ehunekoa, sexua eta sailaren arabera, eta egiten duten balorazioa. | | | | | |
| | | Trebakuntza jaso duten ordezkari politiko kopurua eta ehunekoa, sexua eta sailaren arabera, eta egiten duten balorazioa. | | | | | |
| | GO.3. Genero-zeharlerrotasun estrategian sakontzen jarraitzea | Sektorekako eta zeharkako diagnostikoetan datuak sexuaren arabera bereizita aztertu dituzten sail-kopurua eta ehunekoa. | | | | | |
| | | Sektotekako eta zeharkako Planetan berdintasunari lotutako neurriak eta adierazleak txertatu dituzten sail-kopurua eta ehunekoa. | | | | | |
| | GO.4. Berdintasun-araudia | Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa eginda duten arau-kopurua eta ehunekoa, sailka bereizita. | | | | | |
| | | Berdintasuneko araudi propioa landu eta onartu den: bai/ez. | | | | | |
| | GO.5. Berdintasuna, baliabide ekonomikoak bideratzeko irizpidea | Ikaspenekin egindako dokumentuan oinarrituta, berdintasun klausulak integratuta dituzten kontratu-kopurua, sailka. | | | | | |
| | | Aurrekontuak ikuspegi feministatik aztertzen diren: bai/ez. | | | | | |
| Emakumeen ahalduntzea | EA.1. Emakumeen Etxea eta Eskola Feminista egonkortzea eta zabaltzea | Emakumeen Etxeko etxekide-kopurua. | | | | | |
| | | Emakumeen Etxeko eta Eskola feministako eskaintzan parte hartzen duten emakume-kopurua, profilaren arabera. | | | | | |
| | | Emakumeen Etxeko zerbitzu ezberdinak erabiltzen dituzten emakume-kopurua, profilaren arabera. | | | | | |
| | EA.2. Emakumeen ahalduntze soziopolitikoa sustatzea, Emakumeen Etxean bertan zein bestelako espazioetan | Emakumeen Etxeko arautegia errebisatu den: bai/ez | | | | | |
| | | Errebisio prozesuan parte hartu duten emakume-kopurua eta hauen balorazioa. | | | | | |
| | EA.3. Emakumeen ahalduntzea herrira zabaltzea, Emakumeen Etxetik haratago | Eskola feministako eskaintza dezentralizatzeko gogoeta egin den: bai/ez | | | | | |
| | | Emakumeen Etxetik kanpo modu deszentralizatuan ematen diren zerbitzu/ikastaro/eskaintza kopurua eta tipologia (eredu honen alde egitea erabaki bada). | | | | | |
| | | Emakumeen ahalduntzearen ikuspegia integratzen duten udal-ekipamendu kopurua. | | | | | |

Tresna elikatzeaz Berdintasun teknikaria arduratuko da nagusiki; hala ere, aproposena litzateke sail bakoitzeko arduradunak berari dagozkion ekintzen betetze-maila osatzea.
Urtero garapenarekin lotutako segimendua egiteaz gain, Planaren indarraldiaren erdian, 2026an, alegia, tarteko ebaluazio bat egitea aurreikusi dugu. Arnas luzeko plana izanik, oso garrantzitsua izango da garapenaren erdian geldialdi bat egin, egindako lana eta egoera zein diren baloratu eta, beharrezkoa balitz, Planaren norabidea egokitzea testuinguru berriari hobeto erantzun diezaion.

### 7.3.2 Urteko kudeaketa-planak

Errenteriako Berdintasunerako III. Plana garatzeko urteko kudeaketa-planak prestatuko ditu Berdintasun arloak urtero, Planaren garapena errazte aldera.

- Plana indarrean egongo den urte bakoitzean urteko kudeaketa-plan bat prestatuko du Berdintasun arloak, urte horretan landu beharreko ibilbide eta urrats konkretuak zehaztuz; behin prest daudenean gainontzeko sailekin kontrastatu eta landuko ditu. Planean kronograma hiru urteko tarteetan banatuta dagoen heinean, ezinbestekoa izan da urteko kudeaketa plan horiek sortzea, unean uneko testuinguruari erantzunez, Planaren garapen ordenatua egin ahal izateko. Kudeaketa plan hau, gainera, sail bakoitzera egokituko da. Hau da, Exceleko tresnak aukera ematen du ekintza bakoitzaren arduraduna nor edo nortzuk diren filtratzeko eta, beraz, sail bakoitzari berari urte horretan dagozkion ekintzak bakarrik emateko.
- Urte bakoitzaren hasieran, Berdintasun arloak aurreko urtean garatutako kudeaketa-planari dagokion memoria idatziko du; horretarako, gainontzeko udal-sailek emandako informazioa erabiliko du.
- Urtez urteko memoria-txostenak Planaren jarraipenerako guneetan aurkeztuko dira.

### 7.3.3 Inpaktu adierazleak

Berdintasunerako Plana izatea eta hau garatzea garrantzitsua da, baina betetze-maila bezain garrantzitsua (edo garrantzitsuagoa) da egiten ari garen lanarekin lortzen ari garen eragina neurtzea. Horretarako, aurrerapausoak ematen ari garen ala ez neurtzeko inpaktu-adierazle batzuk zehaztu ditugu.

Hona hemen inpaktu-adierazleen zerrenda. Hauei segimendua egitea ahalbidetuko du Exceleko tresnak.

| Ardatza | Helmuga | Inpaktu-adierazlea |
|---|---|---|
| Gobernu ona | **GO.2. Etengabeko trebakuntza bermatzea, Berdintasunerako Plana garatzeko beharrezko baldintzak sortzeko eta genero-ikuspegia jardueran integratzeko** | Trebakuntza jaso duten udal-langile kopurua eta ehunekoa, sexua eta sailaren arabera, eta egiten duten balorazioa.<br>Trebakuntza jaso duten ordezkari politiko kopurua eta ehunekoa, sexua eta sailaren arabera, eta egiten duten balorazioa. |
| | **GO.3. Genero-zeharlerrotasun estrategian sakontzen jarraitzea** | Sektorekako eta zeharkako diagnostikoetan datuak sexuaren arabera bereizita aztertu dituzten sail-kopurua eta ehunekoa.<br>Sektorekako eta zeharkako Planetan berdintasunari lotutako neurriak eta adierazleak txertatu dituzten sail-kopurua eta ehunekoa. |
| | **GO.4. Berdintasun-araudia** | Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa eginda duten arau-kopurua eta ehunekoa, sailka bereizita.<br>Berdintasuneko araudi propioa landu eta onartu den: bai/ez. |
| | **GO.5. Berdintasuna, baliabide ekonomikoak bideratzeko irizpidea** | Ikaspenekin egindako dokumentuan oinarrituta, berdintasun klausulak integratuta dituzten kontratu-kopurua, sailka.<br>Aurrekontuak ikuspegi feministatik aztertzen diren: bai/ez. |
| Emakumeen ahalduntzea | **EA.1. Emakumeen Etxea eta Eskola Feminista egonkortzea eta zabaltzea** | Emakumeen Etxeko etxekide-kopurua.<br>Emakumeen Etxeko eta Eskola feministako eskaintzan parte hartzen duten emakume-kopurua, profilaren arabera.<br>Emakumeen Etxeko zerbitzu ezberdinak erabiltzen dituzten emakume-kopurua, profilaren arabera. |
| | **EA.2. Emakumeen ahalduntze soziopolitikoa sustatzea, Emakumeen Etxean bertan zein bestelako espazioetan** | Emakumeen Etxeko arautegia errebisatu den: bai/ez<br>Errebisio prozesuan parte hartu duten emakume-kopurua eta hauen balorazioa. |
| | **EA.3. Emakumeen ahalduntzea herrira zabaltzea, Emakumeen Etxetik haratago** | Eskola feministako eskaintza dezentralizatzeko gogoeta egin den: bai/ez<br>Emakumeen Etxetik kanpo modu deszentralizatuan ematen diren zerbitzu/ikastaro/eskaintza kopurua eta tipologia (eredu honen alde egitea erabaki bada).<br>Emakumeen ahalduntzearen ikuspegia integratzen duten udal-ekipamendu kopurua.<br>Ikuspegia integratzeko egin duten lanketan berdintasun-sailak parte hartu duen: bai/ez |
| Zaintza-lanen | **Z.1. Zaintzarekiko herri erantzunkidea izateko bidean urratsak ematea** | Herrian dauden zaintza-beharren eta dauden zaintza baliabideek hauei ematen dieten erantzunaren inguruko azterketa egin den: bai/ez. |

| | | |
|---|---|---|
| ekonomia feminista | | Azterketa egiteko parte hartu duten sail, teknikari eta herritarren kopuruak eta profila (sexua, arloa/eragilea…).<br>Udal baliabideen inguruko asebetetze-maila neurtu, sexuaren eta bestelako aldagaien arabera. |
| | **Z.2. Zaintza-lanetan diharduten emakumeen egoera hobetzea** | Zaintzaile profesionalen zein ez-profesionalen taldeetan parte hartzen duten emakume-kopurua, profilaren arabera.<br>Bitartekaritza bulegoan landutako kasu-kopurua, kasuen nolakotasuna eta erabiltzaileen asebetetze-maila. |
| Ekonomia eraldatzea | **AE.1. Emakumeen autonomia ekonomikoa indartzea** | Jatorri anitzetako pertsonentzat ikasketen homologazio zerbitzua eta ibilbide profesionalen inguruko aholkularitza-zerbitzuan egon diren erabiltzaile-kopurua.<br>Errenteriako emakumeen eta gizonen errenten arteko arrakalak.<br>Zerga-sistemaren aldaketek eragindako pertsona-kopurua, sexuaren arabera bereizita.<br>Emakume eta gizonen berdintasunean aurrerapausoak ematen joateko lanketan parte hartu duten enpresa txiki eta komertzio-kopurua. |
| Indarkeria matxistarik gabeko herria | **IM.2. Indarkeria matxista bizi dutenei arreta integrala ematea** | Egindako koordinazio-bilera kopurua eta horietan parte hartu duten sail edo erakundeak.<br>Sail edota erakunde ezberdinen artean egondako deribazio-kopurua.<br>Erakunde arteko koordinazio protokoloa onartu den: bai/ez<br>Herritarrez osatutako akonpainamendu sarean parte hartzen duten pertsona-kopurua, rolaren eta profilaren arabera bereizita. |
| | **IM.3. Erreparazioa, ahalduntzea eta aitortza** | Indarkeria bizi izan duten emakumeen ahalduntzea indartzeko egindako taldeko esku-hartze kopurua eta horietan parte hartu duten emakume-kopurua. |

# 8 PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa Berdintasunerako Planen arrakastarako gakoetako bat da. Komunikazioa beharrezkoa da herritarrei eta eragileei Udalaren asmoen berri emateko eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko ere. Oinarrizkoa izango da komunikazioa lantzea Udal barrura begira ere, udal langileek Planaren eta honen edukien berri izan dezaten. Azkenik, ez da ahaztu behar berdintasun-agenteekiko eta elkarte feministekiko komunikazioa. Izan ere, azken horiek Planaren diseinu-fasean inplikatu dira, eta kontuak ematea merezi dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legeak eskatzen duen bezala. Horrela, Planaren garapenean parte hartzen jarraitu ahal izango dute.

Hori dela eta, hurrengo urteetan Berdintasunerako Planari lotutako komunikazioan sakontzea zein berdintasun politikei lotutako komunikazioa nola egin lantzea da erronketako bat, Gobernu Onaren ardatzean jasotzen den bezala.

Planaren garapenean 3 komunikazio-une garrantzitsu egongo dira:

- Hasierako komunikazioa edo plan berria ezagutaraztea.
- Planak iraun bitarteko komunikazioa, garapenean zehar egingo dena, alegia.
- Amaierako komunikazioa, behin Planak bere indarraldia amaituta.

Jarraian, une horietako bakoitzean egingo diren lanak zein diren jasotzen da.

## 8.1 Plan berria ezagutaraztea

Behin Berdintasunerako III. Plana onartuta, horren berri emango da bai Udal barruan baita herri-mailan ere, kolektibo hartzailearen arabera estrategia ezberdina jarraituz:

- Udal-langile guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean ardura zehatzak dituzten langileei:
  - Berdintasun arloa udal sail guztiekin elkartuko da arduren banaketaren berri eman eta gaia beraiekin lantzeko, beraz, guztiei emango die Planaren nondik norakoen berri.
  - Arlo-buruek gaia landuko dute urte hasieran kudeaketa-plana lantzean arlo bakoitzari dagozkion ekintzekin.
  - Udal-langile guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
  - Plana bera eskuragarri egongo da intranetean lankide guztientzat.

- Ordezkari politiko guztiei:
  - Ordezkari politiko guztiek ezagutuko dute Plana jada, Plenoan onartuta egongo baita. Hala ere, Planaren txostena bidaliko zaie guztiei.

- Herritarrei:
  - Hedabideen bidez diseinu prozesuaren amaieraren berri eta Plan berriaren indarraldiaren berri emango zaie herritarrei.
  - Plana Udaleko webgunean txertatuko da herritar guztientzat uneoro eskuragarri egon dadin.

- Inork informazio gehiago nahi edo beharko balu Berdintasun arlora jotzeko aukera izango du.

## 8.2 Komunikazioa planaren garapenak irauten duen bitartean

Planaren garapenean zehar momentu bakoitzean garatzen ari den urratsaren arabera erabakiko da zehazki nola egingo den komunikazioa.

- **Udal-mailan**:
  - Udal-mailan dauden segimendurako egituren bidez emango zaie langileei Planaren garapenaren berri; horretarako aurrez aipatutako espazioak erabiliko dira.
  - Horrez gain, Planaren garapeneko lehenengo urteetan komunikazio-estrategia lantzea aurreikusten da, beraz, baliteke barne-komunikazioa egiteko modua aldatzea.
- **Herri-mailan**: Planarekin lotutako ekintza batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren parte hartzea edo inplikazioa beharko duten heinean. Kasuan kasu egokitzen joan beharko gara.
  - Udaleko webgunean Planaren inguruko informazio eguneratua izango da; sare sozialak ere erabiliko dira, batik bat ekintza puntualen berri emateko.
  - Herriko emakume eta eragileekin sortutako foro ezberdinetan (hala nola, Jabetze Eskolako erabiltzaileekin egingo diren urteroko balorazioetan) Planaren berri emango da eta ahal den heinean honen segimendua egiteko espazioak ahalbidetu, herritarrek interesa balute behintzat.

## 8.3 Planaren amaierako komunikazioa

Berdintasunerako III. Plana osotasunean garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da Udal barruan zein herri-mailan. Hau zehazki nola egingo den Planaren indarraldia amaitzean erabakiko da, momentu horretan abiatutako prozesuaren arabera eta horrekin modu koherentean.

## ERANSKINA: Ekintza-plana

Jarraian, Errenteriako Berdintasunerako III. Plana garatzeko proposatutako urratsak jaso ditugu, baita bakoitza zer epetan aurrera eramatea aurreikusten den ere, arduradunak nortzuk izango diren eta neurrien jarraipena egiteko adierazleak ere definitu ditugu.

Ibilbide bakoitza urratzeko proposatutako urratsek izaera desberdina izan dezakete:

- Neurri batzuek urtez urteko garapena izango dute, euren betetze-maila pixkanaka handitzen joango delarik.
- Beste batzuk, aldiz, puntualak izango dira eta beraz, urte konkretu batean gauzatuko dira.
- Horiez gain, egongo dira batzuk urtero garatu beharrekoak; hala nola, Martxoaren 8a bezalako egun esanguratsuetan egitaraua antolatzea.

Ekintza-plana Exceleko tresna batean jaso dugu, lanerako tresna erabilgarria izan dadin eta ez zerbait estankoa. Modu honetara, urtez urteko segimendua egitea erraztuko digu tresnak, baita urteko kudeaketa-plana modu sinplean eskuratzea edota arduradunen araberako banaketa egitea ere.

**ARDATZA: GOBERNU ONA**

**HELMUGA: GO.1. Udala lanerako leku berdinzaleagoa izatea bertan lan egiten duten pertsonentzat**

| Ibilbideak | Urratsak | Arduradunak | Inplikatutako arloak | Urrats-gakoak | Kronograma 2023-2025 | Kronograma 2026-2028 | Kronograma 2029-2031 | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GO.1.1. Udalaren barne-diagnostikoa egin, bereizkeria egoerarik badagoen ezagutu eta Planera begira beharrak zein diren identifikatzeko** | GO.1.1.1. Udal barruko berdintasun egoeraren inguruko diagnostikoa egin sail ezberdinekin lankidetzan. | Giza baliabideak | | | x | | | Diagnostikoa egin da: bai/ez<br>Parte hartu duten sail-kopurua eta parte hartzeko modua. |
| **GO.1.2. Udalaren Berdintasunerako barne-plana egitea.** | GO.1.2.1. Udal barruko Berdintasunerako Plana egin udaleko departamentu ezberdinen parte-hartzea eta lankidetzarekin. | Giza baliabideak | | | x | | | Berdintasunerako Plana egin da: bai/ez.<br>Parte hartu duten sail-kopurua eta parte hartzeko modua. |
| | GO.1.2.2. Planaren berri eman udal barruan. | Giza baliabideak | | | x | | | Planaren berri eman den: bai/ez.<br>Planaren berri emateko modua eta, neurgarria bada, parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren arabera bereizita eta udal.sailaren arabera. |
| | GO.1.2.3. Berdintasunaren ezarpen eta jarraipenaz arduratuko den egitura definitu. | Giza baliabideak | | | x | | | Egitura definitu den: bai/ez.<br>Egitura horretan parte hartzen duten |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | pertsona-kopurua, sexuaren eta duten arduraren arabera. |
| | GO.1.2.4. Planaren indarraldia amaitzean, hau ebaluatu, udalaren diagnostikoa eguneratu eta Plan berria diseinatu. | Giza baliabideak | | | | x | | Plana ebaluatu den: bai/ez.<br>Plan berria diseinatu den: bai/ez. |

**ARDATZA: GOBERNU ONA**

**HELMUGA: GO.2. Etengabeko trebakuntza bermatzea, Berdintasunerako Plana garatzeko beharrezko baldintzak sortzeko eta genero-ikuspegia jardueran integratzeko**

| Ibilbideak | Urratsak | Arduradunak | Inplikatutako arloak | Urratsgakoak | Kronograma 2023-2025 | 2026-2028 | 2029-2031 | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GO.2.1. Udal-langileen trebakuntza beharrei erantzungo dien trebakuntza-plan bat izatea, genero-ikuspegia aintzat hartuko duena** | GO.2.1.1. Udal langileek berdintasunaren inguruan dituzten trebakuntza beharrak aztertu, ezagutza-maila eta plana aurrera eramateko beharrezkoak diren ezagutzak identifikatuz. | Berdintasuna | Giza baliabideak | | x | | | Trebakuntza beharrak identifikatu dira: bai/ez |
| | GO.2.1.2. Langileek dituzten beharrak aintzat hartuta, berdintasuneko trebakuntza-plan bat diseinatu eta hori trebakuntza-plan orokorrean integratzea landu. | Giza baliabideak | | | x | x | x | Trebakuntza-plana diseinatu da: bai/ez<br>Trebakuntza-plan orokorrean integratu da: bai/ez |
| | GO.2.1.3. Udala langileek berdintasunean dituzten trebakuntza beharrei erantzuteko trebakuntzak antolatu. | Giza baliabideak | | | x | x | x | Egin diren trebakuntza-kopurua.<br>Trebakuntza horietan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta jarduera-arloaren arabera.<br>Parte hartu dutenek |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | egiten duten balorazioa. |
| | GO.2.1.4. Berdintasuna edota feminismoarekin berariaz lotuta ez dauden trebakuntzetan genero-ikuspegia integratzen dela bermatu, zeharkako gai gisa. | Giza baliabideak | | | x | x | x | Genero-ikuspegia integratu duten trebakuntzak (kopurua). Trebakuntza horiek antolatu dituzten sailak. Trebakuntza horietan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexua eta sailaren arabera. |
| | GO.2.1.5. Trebakuntzen jarraipena egiteko sistema definitu, genero-ikuspegia aintzat hartuta. | Giza baliabideak | | | x | | | Sistema definitu da: bai/ez |
| **GO.2.2. Udal ordezkari politikoak berdintasunean eta feminismoan trebatzea, udal-politikek genero-ikuspegia integratu dezaten** | GO.2.2.1. Ordezkari politikoak berdintasun gaietan trebatzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea agintaldi bakoitzean. | Berdintasuna | | | x | x | x | Oinarrizko trebakuntza eskaini da: bai/ez Parte hartu duten pertsona-kopurua eta %, sexuaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.2.2.2. Jarduera-eremu bakoitzari lotutako berariazko trebakuntza eskaintzea, jarduera-eremu bakoitzean genero-ikuspegia txertatzeak zer esan nahi duen zehatzago lantzeko. | Berdintasuna | Giza baliabideak | | x | x | x | Jarduera-eremu bakoitzari lotuta ordezkari-politikoek parte hartu duten trebakuntza-kopurua, jarduera-arloka. Parte hartu duten pertsona-kopurua eta %, sexuaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |

**ARDATZA: GOBERNU ONA**

**HELMUGA: GO. 3. Genero-zeharlerrotasun estrategian sakontzen jarraitzea**

| Ibilbideak | Urratsak | Arduradunak | Inplikatutako arloak | Urrats-gakoak | Kronograma 2023-2025 | Kronograma 2026-2028 | Kronograma 2029-2031 | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GO.3.1. Datuak biltzean eta hauen analisian ikuspegi feminista txertatzea** | GO.3.1.1. Sail bakoitzean erabiltzen diren inprimaki eta/edo datu-baseak aztertu, zein aldagai jasotzen dituzten jakiteko. | Informazioaren gizartea | Sail guztiak | | x | | | Inprimaki eta datu-baseak aztertu diren: bai/ez<br>Azterketa egin duten sail-kopurua. |
| | GO.3.1.2. Datu-bilketak egiterakoan datuak nola bildu eta ustiatu trebakuntza/gogoeta saioa egin, sexu-aldagaia zein bestelako aldagaiak noiz eta nola integratu landuz. | Informazioaren gizartea | Sail guztiak | | x | | | Trebakuntza/gogoeta saioa egin den: bai/ez<br>Trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.3.1.3. Jasotzen diren datuez gain, beste aldagai edo adierazleren bat jaso behar den aztertu (genero desberdinkeriak identifikatu edo horietan sakontzeko). | Berdintasuna | | | x | | | Azterketa egin den: bai/ ez<br>Integratuko diren aldagai-kopurua. |
| | GO.3.1.4. Txosten edo instrukzio batean irizpide teknikoak zehaztu eta ezagutzera eman. | Informazioaren gizartea | | | x | | | Txosten edo instrukzioa egin den: bai/ez.<br>Ezagutzera eman den (bai/ez) eta bideak (neurgarria bada, hartzaile-kopurua). |
| | GO.3.1.5. Inprimaki eta/edo datu-baseetan dagozkion aldaketak egin. | Informazioaren gizartea | | | x | | | Egokitutako inprimaki eta datu-base kopurua.<br>Inprimaki eta datu-baseak egokitu dituzten |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | sail-kopurua. |
| | GO.3.1.6. Datuak genero-ikuspegiz aztertzen hasi. Sail bakoitzean lanketa konkretu batzuk hautatu eta pixkanaka egiten den guztira hedatzen joan. | Sail guztiak | | | x | | | Datuak genero-ikuspegiz aztertu dituzten sail-kopurua. Azterketa genero-ikuspegiz egin duten lanketa-kopurua. |
| **GO.3.2. Sektorekako eta zeharkako planetan ikuspegi feminista txertatzea.** | GO.3.2.1. Diseinu, kudeaketa eta ebaluazio-prozesuetan ikuspegi feminista kontuan hartzeko irizpideak zehaztu. | Berdintasuna | Sail guztiak | | x | | | Irizpideak zehaztu dira: bai/ez. Irizpideak zehazten inplikatutako sail-kopurua. |
| | GO.3.2.2. Egiten diren diagnostikoetan datuak sexuaren arabera bereizita (kasuan kasu esanguratsuak diren bestelako aldagaiak ere integratu) jaso eta eragina neurtzeko genero-adierazleak txertatu. | Berdintasuna | Sail guztiak | | x | | | Datuak sexuaren arabera bereizita jaso eta aztertu dituzten diagnostiko-kopurua. Lanketa sexuaren arabera bereizita egin duten sail-kopurua. |
| | GO.3.2.3. Planetan berdintasunari lotutako neurriak eta adierazleak txertatu. | Sail guztiak | | | x | | | Berdintasunari lotutako neurriak eta adierazleak txertatu dituzten plan-kopurua eta %. |
| | GO.3.2.4. Jarraipen-sisteman datuak sexuaren arabera bereizita jaso eta eragina neurtzeko adierazle esanguratsuak identifikatu (sexua, adina, arraza…). | Berdintasuna | Sail guztiak | | x | | | Jarraipen-sisteman datuak sexuaren arabera bereizita jasotzen dituzten plan-kopuruak. |

**ARDATZA: GOBERNU ONA**

**HELMUGA: GO.4. Berdintasun-araudia**

| Ibilbideak | Urratsak | Arduradunak | Inplikatutako arloak | Urratsgakoak | Kronograma 2023-2025 | Kronograma 2026-2028 | Kronograma 2029-2031 | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GO.4.1. Udal araudietan ikuspegi feminista txertatzea.** | GO.4.1.1. Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioaren inguruko trebakuntza egin. | Berdintasuna | Idazkaritza | | | x | | Trebakuntza egin den: bai/ez<br>Trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.4.1.2. Urteko araudi-plana kontuan hartuta, inpaktua izan dezakeen araudi bat hautatu, lanketa egiten hasteko. | Idazkaritza | | | | x | | Araudia hautatu den: bai/ez |
| | GO.4.1.3. Lanketa konkretua aurrera eramateko lantalde bat sortu eta lantalde horretan lanketa egin arau horrek emakumeengan eta gizonengan izan dezakeen eragina aztertzeko. | Idazkaritza | | | | x | | Lantaldea sortu den: bai/ez<br>Lantaldean parte hartzen duten arlo-kopurua.<br>Lantaldean egindako bilera-kopurua eta parte hartu duten pertsona-kopurua. |
| | GO.4.1.4. Egindako prozesuaren berri eman gainontzeko departamentuei, guztien artean ikaspenak atera eta prozesua baloratu. | Idazkaritza | | | | x | | Egindako prozesuaren berri eman den: bai/ez<br>Prozesuaz egin den balorazioa.<br>Inplikatutako sail-kopurua. |
| | GO.4.1.5. Urtero prozesua errepikatu arlo ezberdin bateko araudi batekin, pixkanaka arlo guztiek ezagutza bereganatu dezaten. | Idazkaritza | | | | x | | Urte bakoitzean prozesua egin duten sailak. |
| **GO.4.2. Berdintasuneko araudia(k) lantzea** | GO.4.2.1. Testu juridikoak eta/edo berdintasunaren gaian ezagutza dutenen talde eragile orekatu bat sortu. | Berdintasuna | Idazkaritza | | x | | | Talde eragilea osatu da: bai/ez.<br>Talde eragilean parte hartzen duten pertsona kopurua, sexuaren eta arduraren arabera bereizita. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GO.4.2.2. Trebakuntza saio bat antolatu, teknikari zein politikariak araudi bat onartzeko konpromiso, betebehar zein ondorioen inguruan gaitzeko. | Berdintasuna | Sail guztiak | | | x | | Trebakuntza-saioa egin den: bai/ez<br>Trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.4.2.3. Beste udal batzuen esperientziak ezagutzeko lansaioa(k) antolatu, Berdinsarea eta Foru Aldundiko mainstreamingerako lantaldeaz baliatuta. | Berdintasuna | | | | x | | Lansaioak antolatu diren: bai/ez<br>Antolatutako lansaio-kopurua.<br>Lansaio horietan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.4.2.4. Talde eragilean gaiak errealitatera egokituta landu eta jarraipen-sistema zehaztu. | Berdintasuna | Idazkaritza | | | x | | Talde eragilean gaia lantzeko egindako bilera-kopurua. |
| | GO.4.2.5. Eremuen egituraz baliatuta, gainontzeko sailen ekarpenak jaso eta osatu. | Berdintasuna | Idazkaritza | | | x | | Ekarpenak egin dituzten sail-kopurua. |
| | GO.4.2.6. Araudia onartu eta ezagutzera eman. | Berdintasuna | Idazkaritza | | | x | | Dokumentua onartu den: bai/ez<br>Ezagutzera eman den: bai/ez<br>Ezagutzera emateko sistemaren arabera, zenbat pertsonarengana iritsi garen (neurgarria bada) |

**ARDATZA: GOBERNU ONA**

**HELMUGA: GO.5. Berdintasuna, baliabide ekonomikoak bideratzeko irizpidea**

| Ibilbideak | Urratsak | Arduradunak | Inplikatutako arloak | Urratsgakoak | Kronograma 2023-2025 | Kronograma 2026-2028 | Kronograma 2029-2031 | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GO.5.1. Kontratu, dirulaguntza, hitzarmen eta beka orotan berdintasunerako klausulak txertatzea.** | GO.5.1.1. Berdintasun klausulen inguruko trebakuntza antolatu. | Berditnasuna | Kontratazioa | | x | | | Trebakuntza antolatu den: bai/ez<br>Trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.5.1.2. Lantalde bat sortu klausulen lanketarako arlo desberdinetako arloburuekin. | Berdintasuna | Kontratazioa | | x | | | Lantaldea sortu den: bai/ez<br>Lantaldean parte hartzen duten arlo-kopurua. |
| | GO.5.1.3. Udalak egiten dituen kontratazio, dirulaguntza, beka eta hitzarmen esanguratsuak identifikatu. | Kontratazioa | | | x | | | Identifikazio ariketa egin da: bai/ez<br>Identifikatutako kontratazio, dirulaguntza, beka eta hitzarmen-kopurua. |
| | GO.5.1.4. Lantaldean kontratazio bat hautatu eta lanketa konkretua egin zer klausula izan daitezkeen baliagarriak aztertuz. | Kontratazioa | | | x | | | Lanketa egin den: bai/ez |
| | GO.5.1.5. Egindako lanketaren emaitzak lantaldean konpartitu, elikatu eta prozesua baloratu. | Kontratazioa | | | x | | | Lantaldean konpartitu den: bai/ez<br>Lantaldeko saioan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren arabera eta sailaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.5.1.6. Prozesutik ateratako ikaspenekin prozedura berbera errepikatu bestelako kontratazio | Kontratazioa | Sail guztiak | | x | | | Prozedura errepikatu den kontratazio-kopurua, sailka. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | batzuetan, pixkanaka sail guztiak integratzen joan daitezen. | | | | | | | |
| | GO.5.1.7. Ikaspenekin dokumentu bat prestatu, udal barruko lanketetarako lagungarria izango dena. | Kontratazioa | | | x | | | Dokumentua prestatu den: bai/ez |
| **GO.5.2. Aurrekontuak ikuspegi feministatik aztertzea.** | GO.5.2.1. Gaiaren inguruko trebakuntza jaso. | Berdintasuna | Ogasuna | | | | x | Trebakuntza egin den: bai/ez<br>Trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.5.2.2. Beste udal batzuen esperientziak ezagutzeko lansaioa antolatu. | Berdintasuna | Ogasuna | | | | x | Lansaioak antolatu diren: bai/ez<br>Antolatutako lansaio-kopurua.<br>Lansaio horietan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.5.2.3. Aditu baten laguntzarekin berariazko metodologia definitu, gardentasunaren ataria aintzat hartuz. | Ogasuna | Informazioaren gizartea | | | | x | Metodologia definitu den: bai/ez |
| | GO.5.2.4. Metodologia onartu eta sail batekin proba egin, esperientzia pilotu gisa. | Ogasuna | | | | | x | Metodologia onartu den: bai/ez<br>Zer adostasun mailarekin onartu den (sailen aldetik)<br>Esperientzia pilotua egin den: bai/ez |
| | GO.5.2.5. Ekarpenak eta hobekuntzarako proposamenak jaso. | Ogasuna | | | | | x | Ekarpenak eta hobekuntzarako proposamenak jaso diren: bai/ez<br>Proposamenak egin dituzten sail-kopurua. |
| | GO.5.2.6. Jarraibideak onartu. | Ogasuna | | | | | x | Jarraibideak onartu diren: bai/ez |
| | GO.5.2.7. Aurrekontuak ikuspegi feministatik aztertzeko jarraibideak aplikatu, urtero. | Ogasuna | | | | | x | Jarraibideak aplikatu diren: bai/ez. |

| ARDATZA: GOBERNU ONA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **HELMUGA: GO.6. Komunikazio feminista** | | | | | | | | |
| **Ibilbideak** | **Urratsak** | **Arduradunak** | **Inplikatutako arloak** | **Urrats-gakoak** | **Kronograma** | | | **Jarraipen-adierazleak** |
| | | | | | **2023-2025** | **2026-2028** | **2029-2031** | |
| **GO.6.1. Udalaren komunikazio-estrategia definitzea genero-ikuspegiarekin** | GO.6.1.1. Trebakuntza eskaini udal langile guztiei, hizkuntzaren erabilera ez-sexistaz harago, ikuspegi feministan eta komunikazio irisgarrian trebatzeko. | Berdintasuna | Informazioaren gizartea (komunikazioa) | | | x | | Trebakuntza egin den: bai/ez<br>Trebakuntzan parte hartu duten pertsona-kopurua, sexuaren eta arloaren arabera bereizita, eta egiten duten balorazioa. |
| | GO.6.1.2. Udaleko komunikazio feminista eta irisgarriaren oinarriak definitu eta ezagutarazi. | Informazioaren gizartea (komunikazioa) | | | | x | | Oinarriak definitu diren: bai/ez<br>Ezagutarazi diren: bai/ez<br>Hartzaile-kopurua, sexuaren arabera bereizita (neurgarria bada). |
| | GO.6.1.3. Jada eskura dauden tresnak eta baliabideak identifikatu. | Informazioaren gizartea (komunikazioa) | | | | x | | Identifikazio ariketa egin da: bai/ez |
| | GO.6.1.4. Oinarriak, tresnak eta baliabideak udal barruko intranetean eskuragarri ipini eta lankideei jakinarazi. | Informazioaren gizartea | | | | x | | Eskuragarri jarri diren: bai/ez<br>Lankideei jakinarazi zaien: bai/ez |
| | GO.6.1.5. Udalak egiten dituen komunikazio guztietan adostutako irizpideak aintzat hartuz egin eta tartean behin errebisatu. | Informazioaren gizartea (komunikazioa) | Sail guztiak | | | x | | Irizpideak aintzat hartzen diren: bai/ez<br>Errebisatutako dokumentu/euskarri-kopurua. |
| | GO.6.1.6. Emakumeek gehien erabiltzen dituzten komunikazio-kanalak identifikatu, ikuspegi intersekzionala | Informazioaren gizartea | | | x | | | Identifikazio lana egin den: bai/ez<br>Egindako egokitzapen-kopurua. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | aplikatuz, eta horietara iristen ote garen aztertu, beharrezkoa balitz egokitzapenak eginez. | (komunikazioa) | | | | | | |
| **GO.6.2. Berdintasun Sailaren komunikazio-estrategia definitzea.** | GO.6.2.1. Berdintasunean erreferentziazkoak diren politiken, espazioen eta ekimenen berri emateko euskarri fisiko eta digitalak sortu, Emakumeen Etxea, Berdintasunerako Kontseilua, Eskola Feminista, mugimendu feminista eta auzoetako emakumeen taldeak eta ekitaldiak ezagutzera emango dituztenak. | Berdintasuna | Informazioaren gizartea (komunikazioa) | | x | | | Berdintasun-politiken berri emateko euskarri fisiko eta digitalak sortu dira: bai/ez |
| | GO.6.2.2. Udal barruan Berdintasun Sailak egiten duen lana ezagutarazteko bideak bilatu. | Berdintasuna | Informazioaren gizartea (komunikazioa) | | x | | | Bideak bilatu dira: bai/ez<br>Martxan jarri dira: bai/ez |

| ARDATZA: GOBERNU ONA | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| HELMUGA: GO.7. Berdintasunerako elkarlana | | | | | | | | |
| **Ibilbideak** | **Urratsak** | **Arduradunak** | **Inplikatutako arloak** | **Urrats-gakoak** | **Kronograma 2023-2025** | **2026-2028** | **2029-2031** | **Jarraipen-adierazleak** |
| **GO.7.1. Udalaz gaindiko foroetan parte hartzen jarraitzea: udalerri mailan sortu daitezkeenak, Oarsoaldeakoak, Gipuzkoakoak edota EAE mailakoak** | GO.7.1.1. Egitura bakoitzean parte hartuko duen pertsona/lanpostua nor izango den erabaki. | Berdintasuna | | | x | x | x | Egitura bakoitzean nork parte hartu behar duen erabaki da: bai/ez |
| | GO.7.1.2. Hartutako konpromisoarekin bat datorren parte-hartzea bermatzeko baliabideak jarri. | Berdintasuna | | | x | x | x | Baliabideak jarri dira: bai/ez<br>Parte hartutako espazio eta bilera-kopurua. |
| Berdintasunerako elkarlanarekin lotutako beste ekintza batzuk Plana garatzeko ezinbestekoak direla ulertuta, Berme gisa jaso ditugu. | | Berdintasuna | | | | | | |

## ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

### EA.1. Emakumeen Etxea eta Eskola Feminista egonkortzea eta zabaltzea

| Ibilbideak | Urratsak | Arduradunak | Inplikatutako arloak | Urratsgakoak | Kronograma 2023-2025 | Kronograma 2026-2028 | Kronograma 2029-2031 | Jarraipen-adierazleak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EA.1.1. Datuen bilketa eta ustiaketa sistematizatzea** | EA.1.1.1. Eskola feministaren parte hartzaileen eta Etxeko erabiltzaileen inguruko informazioa jaso eta baita hauen balorazioak ere; tarteka errebisatu osatu edo egokitu behar den aztertzeko. | Berdintasuna | | | x | x | x | Informazioa jasotzen da: bai/ez<br>Balorazioak jasotzen dira: bai/ez<br>Segimendua egiten zaie: bai/ez<br>Egokitzapenik egin da: bai/ez |
| | EA.1.1.2. Emakumeen Etxearen erabileraren inguruko zein datu jaso nahi ditugun eta nola egingo dugun adostu eta honetarako tresna erabilterraz bat sortu (inguruko ereduak aztertu eta haiengandik ikasi, baleude). | Berdintasuna | IKT | | x | | | Jaso nahi ditugun datuak identifikatu ditugu: bai/ez<br>Tresna sortu dugu: bai/ez |
| | EA.1.1.3. Emakumeen Etxearen inguruan zein Eskola feministaren inguruan jasotako datuak sistematizatu eta modu arinean urteko memorian txertatu. | Berdintasuna | | | x | x | x | Datuak sistematizatu dira: bai/ez<br>Memorian txertatu dira: bai/ez |
| | EA.1.1.4. Urteko memoria herritarren eskura jarri: web orrian, sare sozialen bitartez… | Berdintasuna | Informazio gizartea (komunikazioa) | | x | x | x | Urteko memoria eskuragarri dagoen euskarri edota espazio-kopurua. |
| | EA.1.1.5. Memoria osatzean urteko datuei segimendua egin eta beharrezkoa ikusiko balitz horietan eragiteko neurriak proposatu. | Berdintasuna | | | x | x | x | Urteko datuen segimendua egin den: bai/ez<br>Eragiteko proposatutako neurri-kopurua. |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **EA.1.2. Emakumeen Etxeak eta Eskola feministak duten proiektu-ikuspegia indartzea eta parte hartzen duten emakumeek bere sentitzea eta inplikatzea** | EA.1.2.1. Emakumeen Etxearen urteurren festa antolatzea eta Etxekide guztiak zein Eskola Feministan parte hartu duten emakumeak gonbidatu. | Berdintasuna | | | x | x | x | Urteurren festa antolatu da: bai/ ez<br>Bertan parte hartu duten emakume-kopurua, profilaren arabera. |
| | EA.1.2.2. Ikasturte amaierako festa egin Eskola feministan ikasitakoak konpartitzeko eta talde-izaera indartzeko. | Berdintasuna | | | x | x | x | Ikasturte amaierako festa antolatu da: bai/ez<br>Bertan parte hartu duten emakume-kopurua, profilaren arabera. |
| | EA.1.2.3. Komunikazio-kanpaina bat egitea "Zer da zuretzat Emakumeen Etxea?" proiektuan eta prozesuan parte hartu duten eta hartzen duten emakume ezberdinekin, beraien testigantzak jaso, proiektuaren berri eman eta atxikimendua sustatzeko; Etxekide berriak lortzeko bide bezala baliatu daiteke. | Berdintasuna | Informazio gizartea (komunikazioa) | | x | | | Komunikazio-kanpaina egin da: bai/ez<br>Kanpainan parte hartu duten emakume-kopurua, profilaren arabera. |
| | EA.1.2.4. Emakumeen Etxearen bueltan dauden lantaldeek bere jardunaren balorazioa egin eta ateratako ondorioen arabera horien dinamika egokitu. | Berdintasuna | | | | x | | Lantaldeek jardueraren balorazioa egin duten; bai/ez<br>Dinamika egokitu den: bai/ez |
| | EA.1.2.5. Eskola Feministan parte hartzen duten emakumeei Emakumeen etxeko funtzionamenduaren berri eman, Etxekide izateko gonbita luzatuz (eta horrek dakartzan eskubide eta betebeharren berri eman). | Berdintasuna | | | x | x | x | Emakumeen etxeko funtzionamenduaren berri eman zaien; bai/ez<br>Etxekide izateko gonbidea luzatu zaien: bai/ez<br>Etxekide berri kopurua, profilaren arabera. |
| | EA.1.2.6. Eskola Feministak ikuspegi feminista izaten jarraitzen duela bermatu, horretarako formatzaile feministak kontratatzen jarraituko dela bermatuz. | Berdintasuna | | | x | x | x | Ikuspegi feminista duen: bai/ez<br>Formatzaile feminista-kopurua eta %. |
| | EA.1.2.7. Etxekide figuraren garrantzia azpimarratu eta Etxekide berriak lotzeko | Berdintasuna | | | x | | | Etxekide figuraren garrantzia azpimarratzeko ekimen- |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | bideak martxan jarri. | | | | | | | kopurua.<br>Etxekide berriak lortzeko martxan jarritako ekimen-kopurua.<br>Lortutako etxekide berri-kopurua, profilaren arabera. |
| | EA.1.2.8. Etxekideen arteko harremanak eta elkarren arteko zaintza sustatzeko dinamikak abiatu. | Berdintasuna | | | x | x | x | Abiatutako dinamika-kopurua.<br>Horietan parte hartu duten emakume-kopurua, profilaren arabera. |
| **EA.1.3. Emakumeen Etxeko eta Eskola feministako eskaintza profil ezberdinetako emakumeengana iristea** | EA.1.3.1. Datuen sistematizazioaren bidez zein profiletako emakumeengana iristen garen aztertu eta gutxien ordezkatuta dauden profiletako emakumeen balorazioei arreta berezia jarri. | Berdintasuna | | | x | x | x | Azterketa egin den: bai/ez |
| | EA.1.3.2. Erabiltzaileen artean ordezkatuta ez dauden profiletako emakumeengana iristeko bideak bilatu: beraien ohiko espazioetara gerturatu, haien interesekoak izan daitekeen eskaintza egiten saiatu... | Berdintasuna | Gizarte zerbitzuak<br>Gazteria<br>Kultura<br>artekotasuna | | x | x | x | Bideak bilatzeko egindako ekimen/saiakera-kopurua. |
| | EA.1.3.3. Errenterian erroldatzen diren pertsonei ematen zaien informazioaren artean Emakumeen Etxea eta Eskola feminista ere aipatzen direla bermatu. | Informazio gizartea (ZU)! | | | x | | | Erroldatzera datozen pertsonei ematen zaien informazioan integratu den: bai/ez. |
| | EA.1.3.4. Herriko emakumeekin kontaktuan dauden udal-zerbitzu nahiz bestelako instituzio publikoekin koordinaziorako espazio bat sortu, ahalduntzearen ikuspegia ardatz, ematen zaien zerbitzua ahalik eta integralena izan dadin. | Berdintasuna | | | x | x | x | Koordinazio-espazioa sortu den: bai/ez<br>Parte hartzen duten zerbitzu nahiz instituzio-kopurua.<br>Egindako bilera-kopurua eta parte hartu duten pertsona kopurua, sexuaren eta erakundearen arabera. |
| | EA.1.3.5. Herriko emakumeak artatzen dituzten udal-zerbitzu nahiz bestelako instituzio publikoek Emakumeen | Berdintasuna | Gizarte zerbitzuak<br>Liburutegi | | | | | Erakundeek eskaintzaren berri dutela bermatu den: bai/ez |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Etxearen, Eskola feministaren eta hauen eskaintzen berri izan dezaten bermatu, aproposa iruditzen zaien kasuetan honen inguruko informazioa eman dezaten (gizarte zerbitzuak, liburutegia, kiroldegia, osasun zentroa...) | | a Kirolak | | | | | |
| | EA.1.3.6. Neska gazteengana gerturatzeko bideak bilatzen jarraitu, kasuan kasu egokituz: ate irekien egun bat (ikastetxe ezberdinetatik etor daitezela ordutegiekin), Eskola feministaren eta Neska gazteen txokoaren aurkezpena, tailer bat batxilergoko ikasleekin (autodefentsa feminista, adibidez), gazteen aisialdi zerbitzuarekin elkarlanean ekimenak antolatu... | Berdintasuna | Gazteria | | x | x | x | Neska gazteengana gerturatzeko egindako saiakera/ ekimen kopurua. |
| | EA.1.3.7. Herriko talde feministekin harremana izaten jarraitu, bereziki neska gazteen taldeekin, beraien ikuspegia jasotzeko. | Berdintasuna | | | x | x | x | Harremana dagoen: bai/ez |
| | EA.1.3.8. Emakumeen Etxeko Liburutegia elikatzen eta udal-liburutegiarekin lotura egiten jarraitu, gaian interesa duten herritarrek Emakumeen Etxea erreferentzia gisa izan dezaten. | Berdintasuna | Liburutegia | | x | | | Elkarlana eta lotura dagoen: bai/ ez<br>Emakumeen Etxean egindako liburu-mailegu kopurua. |
| | EA.1.3.9. Emakumeen Etxearen zein Eskola feministaren eskaintzan hizkuntzaren kudeaketaren inguruko gogoeta egiten jarraitu eta ahal den neurrian irizpide batzuk adostuta. | Berdintasuna | Udal Hizkuntza Politika | | | x | x | Gogoeta egin den: bai/ez |
| | EA.1.3.10. Berdintasuneko zerbitzu eta ekipamenduetara (Emakumeen Etxea kasu) bertaratzen diren emakume | Berdintasuna | Kultura artekotasuna | | x | | | Neurriak diseinatu diren: bai/ez |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | migranteen parte-hartzea eta ahalduntzea ahalbidetzeko neurriak modu partekatuan diseinatu. | | | | | | | |
